

# Alonsotegi. Haitz Zurién Ibilbidea



Alonsotegi eta Cadaguako bailara, Sasiburuko eta Haitz Zurietakoko hegala

Behin gasaren hodia pasaturik, aisialdi-gune batera iristen da eta bertan Larrazabalgo Basotik igotzen den galtzada bat dago, Deabruaren zubia bezala ezagutzen denaren ondoan. Metro batzuk gorago, baselizara eta Arroletza, Sasiburua eta Haitz Zurietakoko sarrerara iristen da.

Iritsi garen muinotik mendi horien hegaletan zehar Regatoko urtegien gunetik doan eta Haitz Zurién aurreko muinoan amaitzen den pista bat hasten da. Bidea tontor horietara igotzen da larreko bide estua jarraituz. Ezkerretara geratzen da Alonsotegi, behean, Cadaguaren ertzean.


Beherakoan Haitz Zurietakora doan eta Zamundi auzora iristen den muino zabalera iritsiko gara, bertan aisialdi-gune bat



Cadagua ibaiaren zati bat Nerbioi ibaian urak isuri baino lehen.

eta bere jaia maiatzaren 22an ospatzen duen Santa Quiteriako baseliza daude. Behi-aziendak okupatzen ditu basoko txokoak eta artea nagusi da bertan. Ibilbidearen amaiera bitarte zementatutako auzoko pista batetik joango gara.

## Muinotik muinora



Alonsotegiko udalerria da Bizkaiko Enkarterrietako eskualdea osatzen duten hamarretarikoa bat. Alonsotegitik aterata Balmasedara eta Lanestosara iritsiko zara, Kantabriako mugan. Esparru naturalean, Enkarterriek interes handiko lekuekin harrizten gaituzte, Ordunte mendiekin, Karrantzako bailarekin -Bizkaiko Parke Ekologikoarekin edo Pozalaguako kobazuloarekin- eta Haitz Zuriekin eta Sasibururekin, Pagasarri edo Etxebarri eta Gorostizako urtegien gaineko ikuspegiekin.

**A**lonsotegi Cadagua ibaiaren ertzean dago, bailara sakon baten honoan. Santa Ageda baselizarako maldak gogorra da. Basoa enbor fineko eukalipto altuekin osatzen dute.

Santa Ageda Erdi Aroko galtzada



Enkarterrien eta Bilbo Handiaren eskualdeen arteko ardatz diren mendi horietan ibiltzeak mendizalea historiaren beteriko paisaiarekin lotzen du. Bere goiko gunean Tellituko guneko eta Santa Ageda baselizaren inguruko auzoko biztanleek martxan mantentzen zuten burdinola bat egon zen.

Haitz Zurietan Cadaguaren gaineko panoramika oso ederra da. Higaduragatik nahiz urtetan zehar garrantutako meategietako jardueragatik agertu diren kareharri-orratzek osatutako gune karstiko batetik goaz.

FITXA TEKNIKOA

Iraupena: 3h  
Longitudea: 9,15 km.  
Zailtasuna: Ertaina  
Desnibela: 401 m.



IBILBIDEAREN  
SEINALEZTAPENA

 Ibilbidearen jarraitasuna

 Okerreko norabidea

 Norabide aldaketa

 Gezia




Nola iritsi:

Alonsotegira joan behar da, Bilbao Balmasedarekin komunikatzen duen errepidera.

TOPOGIDA

	Distantzia (metroak)	Altitudea (metroak)	Deskribapena
①	0	46	Ibilbidea udaletxeko plazan hasten da, errepidearen izkinan. Errepidea gurutzatu beheko pasabidetik. Ezkerretara jarraitu Erdiko kaletik, Cadagua ibaia pasa eta San Antolin basiliza aurkitzeko. Trenbide-pasagunea gurutzatu eta errepidean gora egin behar duzu itzulerakoan Zamunditik eta Santa Quiteriatik jaitsiko zaren lekura iristeko.
②	600	90	Orain eskuinetara biratu zementuzko pistatik gora joateko. Malda geroz eta gogorragoa egingo da. Txabola bat pasa ondoren metro batzuk behera egingo duzu goi-tentsioko dorreetaraino.
③	1.780	250	Basoetako ebaketa eta birpopulaketa lanek pista gune hau bete eta seinaleak desagertu egin dira, honek bertatik pasatzea zailtzen du. Ipreakialderuntz jarraitu behar da mendi-hegalean zehar ibiliz, Santa Ageda ermitara eramaten duen pista aurkitu arte.
④	2.950	170	



	Distantzia (metroak)	Altitudea (metroak)	Deskribapena
⑤	4.275	450	Baselizaren ondotik muinoraino gora egin eta ondoren Arroletzako tontorreraino.
⑥	5.100	385	Kordala jarraitu mendebalderantz. Sasibururen tontorra zapalduko duzu. Igo beharko duzun muinoa izango duzu bistan.
⑦	6.600	215	Hego-mendebaldeko norabidean jaitsi pistatik Pozorrara iritsi arte eta bertan Santa Quiteriako basilizara jaisteko bidearekin bat egingo duzu.
⑧	8.550	90	Zamundiko nukleo horretan Alonsotegirantz abiatuko zara. Zementuzko pistan jarraitu eta Santa Agedara igotzen den bidera iritsiko zara.
⑨	9.150	46	Ibilbidea bukatzeko ez duzu udalerrira jaitsi besterik.

